"BANDA ZABAL ULTRALASTERRAREN EUSKAL BEHATOKIARI AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA" ZERBITZUAK EMATEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

Espediente zk.: 2022010 Harmonizatua
Kontratazioaren helburua: "Banda Zabal Ultralasterraren Euskal Behatokiari aholkularitza eta laguntza" zerbitzuak ematea
Dokumentua: Preskripzio teknikoen plegua.

1. SARRERA

1.1. Aurrekariak

Hamarkada Digitalean murgilduta dago mundua. Hauek dira ezaugarri nagusiak: digitalizazioaren hedapen azkarra jarduera arlo guztietan, espazio fisikoaren eta birtualaren hibridazioa eta, batez ere, berrikuntzarako eta hazkunde ekonomikorako aukera berriak, gizartearen "datifikazio" handiagoaren ondorioz. 2020an hasitako pandemian zehar ezarritako urruntzeari eta mugikortasunaren mugei erantzuteko orduan, azkar ezarri ziren bitarteko teknologiko digitalak (telelanaren eta bideokonferentzien hedapenetik hasi eta online kontsumoaren gorakadara). Gizarteko jarrerak aldatzen ari direla erakusten du horrek, eta aldaketa horiek geratzeko etorri direla.

Digitalizazioari esker, gero eta errazagoa eta azkarragoa da informazioa eta datu masiboak sortzea, eta ondorioz, datu horiek jasotzea, gordetzea, konbinatzea, aztertzea eta banatzea ere bai. Datuek balio erabakigarria hartu dute, ezagutzaren bektore eta intsumo gisa, "prozesu sozial eta ekonomikoak, produktuak, erakundearen metodoak eta merkatuak hobetzeko erabiltzen direnean". Datuen ekonomia berria deitzen zaio, eta sektore ekonomikoak eta sozialak eraldatuko dituzten negozio-eredu berriak sortzea ahalbidetuko du, industriaren produktibitatea handituta, ikerketa zientifikoen eta teknologikoen eraginkortasuna areagotuta eta sektore publikoaren gardentasun maila handituta. Hortaz, enpresa industrialen, zerbitzu aurreratuen, Administrazio Publikoen eta mundu osoko eragile sozioekonomikoen jomugan dago hauen arteko elkarrekintza: datuak, algoritmoak, analisi-sistema aurreratuak eta adimen lehiakorra. Ematen dituen aukerengatik eta aurkezten dituen erronkengatik (batez ere, jabetzarekin, pribatutasunarekin, eskuragarritasunarekin, erabilgarritasunarekin eta segurtasunarekin lotutakoak) da interesgarria.
Dena den, enpresek, herritarrek, Administrazio Publikoek eta makinek sortutako datuek, bere horretan, ez dute baliorik. Teknologia digitalek ematen diete balioa, datu horiek jasotzen, helarazten, gordetzen eta aztertzen dituztenean.

Datuak eskuratzearekin eta sortzearekin lotutako teknologien artean, Internet of Things (IoT) nabarmentzen da: gailu medikoak, domotikoak, ekipo industrialak edo garraiobideetan sartutako ekipoak, adimendunak edo elkarren artean konektatuak; denbora errealean sortzen dute informazioa eta, gainera, informazio hori aztertu eta erabakiak hartzeko gaitasuna dute. Teknologia horiek pixkanaka ezartzen, integratzen eta ustiatzen ari dira enpresa-ehunean eta gizartean. Eraginkortasun maila areagotzea eta eskura dagoen informazioa monetizatzea ahalbidetzen du horrek, berrikuntza bultzatzeko eta negozio-aukera berriak aprobetxatzeko.

5G-ren gisako teknologiei esker, datuen transmisioa erritmo esponentzialean hazten ari da mundu mailan, abiadurari eta bolumenari dagokienez. Datuak gaitasun handiagoko sareen bidez bidaltzeak eta trukatzeak eragin positiboak ditu arlo ugaritan: industrian, zehaztasun handiko jarduerak garatzeko aukera ematen duelako; mugikortasun arloan, ibilgailuen eta garraio-azpiegituren arteko komunikazioa ahalbidetzen duelako; edo merkataritza arloan, kontsumitzailek sare sozialak modu masiboan erabiltzeak ematen dituen merkatuko datuak ustiatua.

Datuak gordetzeari dagokionez, cloud computingekin lotutako teknologiek irtenbide malguagoak, eraginkorragoak eta merkeagoak eskaintzen dituzte. Gainera, edukiera handiagoa eskaintzen dute, eta informazioa kudeatzea errazagoa da. Gainera, cloud soluzio espezifikoen eta hodei hibridoen sorrerari esker, Administrazio Publikoa, enpresen sektorea eta eragile ekonomikoak elkarlana eta elkarreragingarritasuna hobetzen ari dira datuak aprobetxatzeko orduan, lehiakortasun-abantaila gisa.

Bestetik, datu kopuru handiak aztertzeko aukera ematen duten teknologiak (big data analytics) ezartzeak lehiakortasun-abantaila ugari ekarri dizkie eragile publikoei eta pribatuei. Arlo horretan, adimen artifizialak eta datuak aztertzen laguntzeko machine learning teknologiak aukera ematen dute erronka eta behar espezifikoen aurrean erantzun azkarrak sortzeko, eta merkatu-nitxo berriak identifikatzeko eta sortzeko. Esaterako, augmented analytics edo continuous intelligence sistemetan oinarritutako teknologiak erabiltzeak aukera ematen du denbora errealeko datuak eta proiekzioak enpresa arloko eragiketekin integratzeko, hala, erabakiak hartzea automatizatzeko eta ziurgabetasuna murrizteko.

Testuinguru horretan, TELEKOMUNIKAZIOEN papera funtsezkoa da. Enpresek eta, oro har, gizarteak konektagarritasuna behar dute "datuen ekonomiarekin" lotutako teknologiak erabiltzeko. Sare finkoek eta mugikorrek eutsi behar diete BANDA ZABALEKO komunikazio horiei. Teknologien aplikazioek ere informazioa mugitu bitartean eskuratu behar dute, banda zabal ultralasterraren baldintzetan.

Hortaz, beharrezkoa da Euskadiko BANDA ZABALAREN egoera monitorizatzea, arrakala digitala eragiten duten egoerak zuzentzeko erabaki egokiak hartu ahal izateko, merkatua egoera horiek konpontzeko gai ez denean.

Ildo horretatik, BANDA ZABAL ULTRALASTERREKO SAREAK HEDATZEKO PLANAK garatu dituzte Administrazioek, Telekomunikazio Zerbitzuen eskaintzari eta eskariari laguntzak eta pizgarriak emanez, telekomunikazio-sareak hedatzea sustatzeko.

Hala, 2016az geroztik hainbat Laguntza Agindu diseinatu dituzte, merkatuaren gabeziak konpontzen lagunduko duten dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen dituztenak. Euskadiko enpresaguneetan, herriguneetan eta barreiatutako eremuetan banda zabal ultralasterreko sareak heda ditzaten sustatzea da laguntza horien helburua.

Halaber, oinarri hauek xede dituzten laguntzen bateragarritasunaren gaineko aldeko txostena jaso dute laguntza-programa hauek Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatuko Idazkaritzaren eskutik. Eraldaketa Digitala bultzatzeko laguntza publikoei dagokienez (Banda Zabal Ultralasterren sareen eskaintza eta eskuragarritasuna sustatuz), Administrazio Publikoen arteko koordinazioa egokia izan dela ziurtatzen du txosten horrek.

Gidalerro horien arabera, Euskadiko Enpresaguneetan Belaunaldi Berriko Banda Zabaleko sareak hedatzeko laguntza-programak ezarri ziren 2016ko ekitalditik aurrera, 2023ko ekitaldira arteko hedapen-epeekin.

Laburtuz, Banda Zabal Ultralasterreko Sareak Hedatzeko hainbat laguntza-plan diseinatu dira Administrazio Publikoen artean, modu koordinatuan. Hala, hainbat eremutan (Euskadiko enpresaguneak, herriguneak eta eremu barreiatuak) FTTH, LTE edo 5G sareak zabaltzeko jarduketak koordinatu dituzte.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak "2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia" onartu zuen 2021eko martxoaren 30ean, eta Legebiltzarrera bidali zuen. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bultzatutako plan honek eraldaketa digitalerako eredu berri bat ezartzen duen erronkari lagunduko dio, parte hartzen duten eragile guztien laguntza sinergiko, proaktibo eta koordinatuarekin.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gogoratu duenez, Euskadin Eraldaketa Digitala bultzatzeko estrategiak 20 urteko ibilbidea du, eta aldatzen joan da digitalizazioaren aukerak txertatzeko. Hala, digitalizazioak berrikuntzarako palanka izateko duen gaitasuna aprobetxatu nahi da, ekoizpen-sektoreak modu disruptiboan eraldatzeko eta 4.0 industrializazio adimenduna lortzeko.

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

"Banda zabal ultralasterraren euskal behatokiari aholkularitza eta laguntza" emateko zerbitzua kontratatu behar du SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean, "**SPRI**"). Preskripzio Teknikoen Plegu honen hurrengo atalean zehazten dira egin beharreko lanak.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira.

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

3.1. Helburuak

Euskadiko enpresaguneetan, herriguneetan eta barreiatuetan BANDA ZABAL ULTRALASTERREKO SAREAK HEDATZEKO PLANAK (sare finkoak zein mugikorrak) gauzatzeko laguntza ematea da zerbitzu hau kontratatzearen helburu nagusia. Gauzatzen ari diren planak, dagoeneko gauzatuta daudenak eta gauzatzeko epea luzatu dieten planak. BANDA ZABAL ULTRALASTERRAREN EUSKAL BEHATOKIAREN webgunean dago argitaratuta programa horien zerrenda (www.euskadibandazabala.eus). Webgunean kontsulta daitezke oinarri arautzaileak.



Gaurko datan, honako hau da zerrenda historikoa:

2018tik aurrera egindako deialdiak

Enpresaguneetan banda zabal ultralasterra hedatzeko helburuz Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek garatutako Laguntza Programekin lotutako dokumentuak aurkezten dira jarraian.

1. 2019ko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS/EU)
2. 2018ko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS/EU)

Herriguneetan banda zabal ultralasterra hedatzeko helburuz Eusko Jaurlaritzak garatutako Laguntza Programekin lotutako dokumentuak aurkezten dira jarraian.

1. 2020ko deialdia, 2. fasea
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)

- Deialdiaren oinarriak (EU)
- Deialdiaren ebazpena (CAS)
- Deialdiaren ebazpena (EU)

2. 2019-2020 deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS/EU)
3. 2018ko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS)
   - Deialdiaren ebazpena (EU)

Deialdia

Arabako Lurralde Historikoko herriguneetan eta eremu barreiatuetan banda zabal ultralasterra hedatzeko helburuz Arabako Foru Aldundiak garatutako Laguntza Programarekin (Araba Konektatua) lotutako dokumentuak aurkezten dira jarraian.

1. 2018ko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Oinarrien aldaketa (CAS)
   - Oinarrien aldaketa (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS)

Bizkaiko Lurralde Historikoko eremu barreiatuetan banda zabal ultralasterra hedatzeko helburuz Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako Laguntza Programarekin (Bizkaia Aurrera!) lotutako dokumentuak aurkezten dira jarraian.

1. 2020ko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS)
   - Deialdiaren ebazpena (EU)

Webgune honetan topa dezakezu informazio gehiago: https://web.bizkaia.eus/es/bizkaiaaurrera/plan-de-digitalizacion-bizkaia-aurrera

Gipuzkoako Lurralde Historikoko higiezinen unitate barreiatuetan (2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrien erdigunetik 0 eta 2.000 metro arteko erradioan kokatuak) banda zabal ultralasterra hedatzeko helburuz Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako Laguntza Programarekin (LandaGipuzkoa+) lotutako dokumentuak aurkezten dira jarraian.

1. 2021eko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS/EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS/EU)
2. 2018ko deialdia
   - Deialdiaren oinarriak (CAS)
   - Deialdiaren oinarriak (EU)
   - Deialdiaren ebazpena (CAS/EU)

Webgune honetan topa dezakezu informazio gehiago: https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/landa-gipuzkoa/banda-ultra-azkarra

Banda zabal ultralasterra hedatzeko helburuz Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioak garatutako Laguntza Programekin lotutako dokumentuak aurkezten dira jarraian.

1. 2020-2024 programak

Programaren oinarriak

- ETD / 704/2021 agindua, ekainaren 25ekoa (2021eko uztailaren 2ko BOE)
- ETD / 348/2020 agindua, apirilaren 13koa (2020ko apirilaren 16ko BOE)

2021eko deialdia

- Deialdiaren testua
- Onartutako proiektuen zerrenda

2020ko deialdia

- Deialdiaren testua

2. 2013-2019 programak

Programaren oinarriak

- ETU/275/2017 agindua, martxoaren 22koa (2017ko martxoaren 28ko BOE)
- IET/275/2015 agindua, otsailaren 17koa (2015eko otsailaren 20ko BOE)
- IET/241/2014 agindua, otsailaren 13koa (2014ko otsailaren 21eko BOE)
- IET/1144/2013 agindua, ekainaren 18koa (2013ko ekainaren 21eko BOE)

2019ko deialdia

- Deialdiaren testua
- Epeak luzatzea
- Deialdiaren testuaren aldaketa
- Onartutako proiektuen zerrenda

2018ko deialdia

- Deialdiaren testua
- Epeak luzatzea
- Onartutako proiektuen zerrenda

Webgune honetan topa dezakezu informazio gehiago: https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/banda-ancha/Normativa/Paginas/Convocatorias.aspx

3.2. Kontratuaren xede diren jarduerak

Orokorrean, BANDA ZABAL ULTRALASTERRAREN BEHATOKIARI haren funtzioak garatzen laguntzea. Funtzio hauek nabarmentzen dira, beste batzuen artean:

- Operadoreek banda zabala hedatzeko asmoa dutela adierazten duten enpresa arloen jarraipena egitea.
- Diruz lagundutako hedapen-proiektuen exekuzioa monitorizatzea laguntzak jaso dituzten 450 enpresagune baino gehiagotan Gauza bera hedapen-proiektuak dituzten 500 herrigune baino gehiagotan (Banda Zabala Hedatzeko Plana-Euskadi-Herriguneak).
- Operadoreei laguntzea administrazioaren baimenak jasotzeko egin beharreko izapideetan.
- 2022/2023ko eta ondorengo EREMU ZURIEN proposamen berria prestatzea.
- Euskadiko eremu zuri batzuk zehazteko orduan Administrazioekin hitz egitea (udalak, Foru Aldundiak, etab.).
- HERRIGUNEETAKO Banda Zabala Hedatzeko Planak koordinatzea, sinergiak sortzeko. Foru-aldundiei eta udalei laguntzea.
- Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatuko Idazkaritzarekiko elkarrizketan koordinazioa mantentzea.
- Enpresaguneetako eta herri-unitateetako konektagarritasunaren egoerari buruzko eskualde mailako txostenak egitea.
- NGA hedapena duten enpresaguneak monitorizatzea, zerbitzua enpresagune bakoitzeko hedaduraren % 100ean eskaintzen den egiaztatzeko. Gauza bera herri-unitateetan (herriguneak eta barreiatuak).
- Euskadiko 5Garen hedapenak monitorizatzea.
- Banda zabaleko sareak hedatzea sustatzeko Euskadin martxan jar litezkeen proiektuei laguntzea.
- Estatuak eta EBk Banda Zabalaren hedapenak sustatzeko helburuz bultzatzen dituzten jarduketak monitorizatzea.
- BANDA ZABAL ULTRALASTERRAREN BEHATOKIAREN webgunean argitaratzen den informazioa eguneratuta mantentzea: www.euskadibandazabala.eus

4. PROIEKTUARI ESLEITUTAKO LANGILEEK IZAN BEHARREKO PROFIL PROFESIONALA ETA ZERBITZUAREN DIMENTSIONAMENDUA

Aurreko atalean deskribatutako lanak egin ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da lantaldeko 2 pertsonak, gutxienez, telekomunikazioen arloan esperientzia izatea, BANDA ZABAL ULTRALASTERRAREN BEHATOKIARI laguntza eman behar zaiola kontuan hartuta.

SPRIko ERALDAKETA DIGITALAREN Arloak zuzenean gainbegiratuko ditu proiektuko lantaldeak egindako lanak.

Behar puntualen arabera, proiektura pertsona gehiago sartzeko eska dezake SPRIk.

Proposatutako pertsonek ezagutza hauek izan behar dituzte:

- Goi mailako prestakuntza arlo hauetan: Ingeniaritza Industriala, Ingeniaritza Informatikoa, Telekomunikazioen Ingeniaritza, Fisika, Matematika edo baliokideak.
- 5G teknologiari buruzko ezagutzak.
- Telekomunikazioen araudi-sistemari buruzko ezagutzak.
- Euskadiko telekomunikazioen sektorearen gaineko ezagutza.
- Haririk gabeko komunikazio-teknologien (LTE, 5G, irrati-loturak eta abar) eta komunikazio-teknologia finkoen (FTTH, HFC eta abar) gaineko ezagutzak.